

Koiuntura di-da batean

2017ko abendua

Aurkibidea

1. Hazkundera
 2. Enplegua
 3. Inflazioa
 4. Kanpo merkataritza
 5. Ingurunea
 6. Aurreikuspenak
- Eranskina

1. EAEko ekonomia zertxobait bizkortu zen hirugarren hiruilekoan.

Urte arteko tasa %3,0an kokatu zen, aurreko datua hamarren batean gaitutuz.

2. Enplegu sorrerak erritmo onean jarraitzen du.

Lanaldi osoko 935.000 lanposturen langa berreskuratu da.

3. KPI indizea %1,6ra apaldu zen urrian.

Azpiko inflazioa ere hiru hamarrenetan murriztu zen eta %0,9an kokatu.

4. Energiaz bestelako esportazioek beste maximo bat lortu dute.

Urtarriletik irailera %8,3 hazi ziren iazko emaitzarekin alderatuta.

5. Hazkunde sendoa ekonomia garatu nagusietan.

ELGEn kalkuluek %2,6an kokatu dute hirugarren hiruilekoko gehikuntza.

6. Europako ekonomia hazkundera gorantz berrikusi dute.

Europar Batasuna %2,3 haziko da aurreten eta %2,1, berriaz, 2018an.

EUSKO JAURLARITZA

OSASUN ETA EKONOMIA
SALA
Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritza



GOBIERNO VASCO


DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA

EAEko ekonomia zertxobait bizkortu zen hirugarren hiruhilekoan

Barne produktu gordina


Urte arteko aldakuntza tasa



Eustatek osatzen dituen kontu ekonomikoek erakusten dutenez, EAEko ekonomiak hazkunde erritmoa hamarraren batean areagotu zuen berriro hirugarren hiruhilekoan, urte arteko aldakuntza tasa %3,0an kokatuz. Horri esker, aurtengo lehen hiru hiruhilekoetan eskuratu den batez bestekoa %2,9 da, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak ekitaldi osorako kalkulatu zuen zenbakiarekin (%2,9) bateragarria dena. Eskariaren ikuspegitik, kapital eraketa gordinak lortu duen sendotasuna (%3,9) azpimarratu behar da, hala ekipamendurako ondasunen atalean (%4,5) nola gainontzekoan (%3,5). Halaber, kontsumo pribatuak aldaketarik gabe eutsi zion bere erritmo biziari (%3,0) eta esportazioen hobekuntza (%3,7) konpentsatuta geratu zen inportazioek izan zuten antzeko bultzadarekin (%3,9).


Azken kontsumoaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasa




Inbertsioaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasa




Industriaren balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa



Eraikuntzaren balio erantsia


Urte arteko aldakuntza tasa



Sektoreen ikuspegitik, hiruhilekoak utzi duen irudiak oreka hobezina islatu du EAEko ekonomiaren hiru jardura nagusien artean. Izan ere, zerbitzuek %3,0a zertxobait gaitzitzen duen erritmoari atxiki zioten eta tasa hori bera eskuratu zuen eraikuntzak, behin susperraldia finkatu eta gero. Industriak, berriz, ia puntu erdi batean hobetu zuen aurreko emaitza eta %2,7ko urte arteko tasa eskuratu zuen, hala manufakturetan nola energian datu onak zituelarik. Hobekuntzako ibilbide horretatik aldendu zen arlo bakarra lehen sektorea izan zen (%-1,9), baina jardura horietan ohikoak izaten dira gorabehera handi horiek.


Zerbitzuen balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa




Merkataritza, ostalaritza eta garraioaren balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa



Administrazio publiko, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuen balio erantsia


Urte arteko aldakuntza tasa



LAN MERKATUA


Enplegu sorrerak erritmo onean jarraitzen du

Enplegu guztia
Urte arteko aldakuntza tasa



Eustaten kontu ekonomikoek zenbatetsi dutenez, 2017ko hirugarren hiruhilekoan enplegua %2,1 hazi zen urte arteko tasan. Erritmo hori eta aurreko bi hiruhilekoetan jaso zena oso antzekoa da. Are gehiago, dagoeneko bi urtez hauteman da nahiko egonkorra den bilakaera hori. Aipatu den aldakuntza tasa horrek esan nahi du erreferentziako epealdi horretan lanaldi osoko 935.000 lanposturen maila berreskuratu zela, lehenengo aldiz 2011ko erdialdetik. Guztira, ia 20.000 lanpostu garbi sortu dira azken urtebetean.


Enplegua zerbitzuetan
Urte arteko aldakuntza tasa



Berriro ere, zerbitzuek ekarri dute enplegu berri horien kopuru handiena. Orobat, urte arteko gehikuntza tasa altuena lortu du sektore horrek (%2,3). Guztira, 666.000 lanpostu baino gehixeago daude sektorean, hots, guztizkoaren %71. Haietatik, 15.000 inguru azken hamabi hilekoetan sortu dira.

Enplegua industrian


Urte arteko aldakuntza tasa



Pisua daukaten gainontzeko sektoreek ekarpen txikiagoa egin zioten enpleguaren hobekuntzari, baina oraindik esanguratsua da ekarpen hori. Hain zuzen ere, industriaren enplegua %1,7 gehitu zen eta eraikuntzarena, berriz, %1,5. Lehen arloak ere lanpostuen kopurua handitu zuen hiruhilekoan (%2,8), nahiz eta sektorearen tamaina txikiak 340 enplegutara mugatzen duen sortutako lanpostuen kopurua.


Enplegua lehen arloan

Urte arteko aldakuntza tasa




Enplegua eraikuntzan

Urte arteko aldakuntza tasa



Gizarte Segurantzako afiliazioa

Urte arteko aldakuntza tasa




Lan merkatuaz argitaratu den azken informazioak pentsarazten du enplegu sorreraren erritmoa, agian, galgatzeko ari dela, produktibitate handiago baten mesedetan. Izan ere, Gizarte Segurantzaren afiliazioaren urriko datuek, argitaratu diren azkenak baitira, %1,8ko gehikuntza izan zuten, urte osoko tasarik txikiena baita. Hala eta guztiz ere, datu horretan urte sasoiaren eragina nabaria da. Beraz, komenigarria da azaroko datua aztertzea joera aldatzen ari ote den baieztatzeko.

INFLAZIOA

KPI indizea %1,6ra apaldu zen urrian

KPI indize orokorra
Urte arteko aldakuntza tasa



Urrian, inflazioa hiru hamarren gutxitu zen aurreko hilekoaren aldean eta %1,6an kokatu zen, batez ere erregaiak iaz baino gutxiago garestitu zirelako. Horretaz gain, indizearen beste osagai batzuek ere aldeko portaera izan zuten eta, horren ondorioz, azpiko inflazioa ere hiru hamarrenetan moteldu zuen bere erritmoa, iraileko %1,2tik urriko %0,9ra.


KPIaren banaketa
Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2015	2016	2017ko urria	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	-0,3	0,0	1,6	1,6
Azpiko inflazioa (%81,8)	0,7	0,9	0,9	0,7
- Elikagai landuak (%14,3)	1,1	0,9	0,6	0,1
- Industria ondasunak (%24,5)	0,3	0,8	-0,3	-0,1
- Zerbitzuak (%43,1)	0,8	1,1	1,7	0,7
Hondar inflazioa (%18,2)	-4,5	-4,2	4,7	0,9
- Landu gabeko janariak (%7,8)	1,9	2,6	5,2	0,4
- Energia (%10,4)	-8,4	-8,2	4,0	0,5

Azpiko inflazioa
Urte arteko aldakuntza tasak



Hondar inflazioa
Urte arteko aldakuntza tasak



Petrolio upelaren prezioa

Dolarrak



Petrolioaren salneurriaren bilakaerak eragin nabarmena du oraindik kontsumoko prezioen nondik norakoan eta azken urtebete eta erdian lehengai hori garestitu dela hautematen da, bereziki dolarretan neurtzen denean. Hala ere, goranzko efektu hori neurri batean euroak dolarren aldean izan duen balio irabaziak konpentsatu du, azken urtean %10 inguru irabazi duelako.

Etorkizunean petrolioak eta truke tasak izango duten bilakaera jakitea ez da erraza. Konbinaketa kaltegarriena hau izan daiteke: Ekialde Ertaineko tentsioek eta munduko eskaria handiagoak petrolio garestitzea eta, aldi berean, dolarrak euroaren aldean balioa irabaztea, herrialde hartako moneta politika normalizatzearen ondorioz, interes tasen igoeren egutegi aurreikusari jarraituz.

KPIaren talde nagusiak
Urte arteko aldakuntza tasak. 2017ko urria


	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	1,6	1,6	1,4
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,3	2,3	2,4
Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,5	1,8	2,2
Jantziak eta oinetakoak	0,5	0,5	0,0
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	2,2	2,2	1,6
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	-1,0	-0,6	0,0
Medikuntza	0,3	0,5	1,0
Garraioa	2,5	2,2	2,1
Komunikazioak	0,6	0,6	-1,8
Aisia eta kultura	2,5	1,5	1,0
Hezkuntza	1,5	0,8	-2,2
Jatetxeak eta hotelak	2,0	2,1	2,4
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	0,2	0,5	0,5

Iturria: INE eta Eurostat.

KANPO MERKATARITZA

Energiaz bestelako esportazioek beste maximo bat lortu dute

Energiaz bestelako esportazioak. Milioi euroak
Urtariletik irailera bitartekoa pilatua



Iturria: Eustat.


Eustatek atzerrira esportatutako ondasunen datuak, hirugarren hiru hilekokoak, argitaratu berri du. Beraz, dagoeneko aurtengo lehen bederatzi hilekoetako informazioa ezaguna da. Estatistika iturri horren arabera, EAEko enpresek epealdi horretan 16.160 milioi euro baino gehiago balio zuten energiaz bestelako produktuak esportatu zituzten, hots, serie historiko osoan inoiz jaso den diru kopururik gorena. Urte arteko tasan neurtuta, %8,3 hazi ziren. Maila horrek 4,7 puntutan hobetu du iazko epealdi berean eskuratu zen ehunekoa eta atzerriarekin eginiko merkataritzak bizi duen hobekuntza agerian utzi du. Halaber, bigarren urtez jarraian, EAEk lortutako tasa Espainiak izan duena (%7,0) baino altuagoa da.

ENERGIAZ BESTELAKO SALGAIEN ESPORTAZIOAK
Urtariletik irailera. Urte arteko aldakuntza tasak


	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Euskadi	-29,9	21,5	16,9	-1,0	0,2	3,2	1,4	3,6	8,3
Espainia	-17,5	15,6	16,4	3,1	5,6	0,8	6,7	3,0	7,0

Iturria: Eustat eta Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa (Datacomex).

Energiaz bestelako esportazioen banaketa





Ekipamendu ondasunen bilakaera



Ekipamendurako ondasunek energiaz bestelako esportazioen erdia baino gehiago bereganatzen dute eta, hori dela eta, beraren bilakaerak salmenten guztizkoa baldintzatzen du. Garraio materialak erakutsi duen sendotasunak, %12,2 hazi baitzen, eta makinak eta tresnek izan duten hobekuntzak bide eman zieten ekipamendurako ondasunei %8,5 hazteko. Horri erantsi behar zaio metal arrunten bultzada sendoa (%15,5 areagotu ziren, 2016an %10,2 jaitsi ziren bitartean), guztizkoaren hazkundera azaltzeko. Esportazio guztiei dagokienez, ibilbidea are biziagoa izan zen (%10,2), erregai mineralen bilakaera bikainari esker (%34,9), beren prezioen garestitzeak lagunduta.

Inportazioek ere ibilbide dinamikoa erakutsi zuten (guztizkoa %22,9 gehitu zen eta energiaz bestelakoa, berriz, %11,3), talde guztiak hazi zirelako. Aurreko guztiaren ondorioz, bederatzi hileko horien saldo garbia positiboa izan da eta 3.814 milioi euroko merkataritza superabita ekarri du. Energia alorreko produktuak kontuan hartu gabe, energiaz bestelako merkataritza saldoak 6.057 milioi euroko superabita utzi du.


Saldo osoa BPGarekiko
Urtariletik irailera bitarteko epeaSaldo ez energetikoa BPGarekiko
Urtariletik irailera bitarteko epea

BPG-AREN HAZKUNDEA

Hazkunde sendoa ekonomia garatu nagusietan

ELGE. BPGaren bilakaera


Urte arteko aldakuntza tasa



Ekonomia garatuek hedatzeko erritmo sendoari eutsi diote. Aurtengo lehen hilekoetan herrialde batzuetan (Frantzia, Japonia eta Italia, besteak beste) bizitasuna galgatu eta gero, hirugarren hiru hilekorako argitaratu diren datuek hazkundearen suspertzea erakusten dute. Izan ere, ELGEk %2,6ko urte arteko gehikuntza zenbatetsi du udako hilekoetarako, 2015eko erdialdetik jaso den emaitzarik onena baita. Moneta eta zerga politikek eman duten etengabeko sostenguak gorakada hori azaltzen du.

Japoniako BPGaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGE.

Badirudi Japoniak aurkitu duela hazkunde egonkorra lortzeko formula, gorabehera handiko urte batzuen ondoren. Bertako BPGa %1,6 handitu zen eta bederatzi hileko jarraian eman ditu hedatzeko bidean. Halakorik ez zen 2013ko urtarritetik gertatzen. Esportazioen une gozoak, %6,3 areagotu baitziren, eta inbertsioarenak (%2,3) laguntza erabakigarria eman zioten hazkundeari eta kontsumo pribatuaren motel-tzea (%0,7) konpentsatu zuten. Gobernuaren ustez, udan artxipelagoan bizi zen eguraldi txarrak kalte egin zion bidaien eta ostalaritzan gastatutakoari.

Frantziako agregatu makroekonomiko nagusiak							
	2016-I	2016-II	2016-III	2016-IV	2017-I	2017-II	2017-III
BPG	1,2	1,2	0,9	1,2	1,1	1,8	2,2
Kontsumo pribatua	2,1	2,3	1,7	2,2	0,9	0,9	1,6
Kontsumo publikoa	1,1	1,2	1,3	1,3	1,3	1,4	1,5
Inbertsioa	2,8	3,4	2,6	2,0	2,4	3,4	4,0
Esportazioak	2,3	0,9	1,9	2,3	1,2	3,9	3,5
Inportazioak	5,2	3,8	4,8	3,1	3,7	4,9	4,7
Langabezia tasa	10,2	10,1	10,0	10,0	9,6	9,5	9,7
KPI	0,0	0,1	0,4	0,7	1,5	1,0	1,0

Iturria: ELGE eta Eurostat.

Frantziako ekonomiak hazkunde garrantzitsua eskuratu zuen 2017ko hirugarren hiruhilekoan, Euroguneko bigarren ekonomia handienaren susperraldiak aurrera jarraitzen duela iradokitzen duena. Bereziki barne eskariaren agregatuek bultzatu zuten ekonomia jardura. Izan ere, inbertsioaren sendotasunak, goranzko norabideari eutsi baitzion eta %4,0 hazi, eta kontsumo pribatuak, sei hilekoz datu ahulak jaso ondoren suspertu baitzen, kanpo arloaren narriadura konpentsatu zuten. Aurrekoaren ondorioz, herrialdeko BPGa %2,2 handitu zen, 2011ko bigarren hiruhilekotik inoiz lortu duen emaitzarik gorena baita. Langabezia tasak, berriz, gora egin zuen hirugarren hiruhilekoan, 2015eko erdialdean, hots, langabezia tasa balio gorenetan (%10,5) zegoenean, hasitako beheranzko joera, une batez, geldituz.

Alemaniako agregatu makroekonomiko nagusiak							
	2016-I	2016-II	2016-III	2016-IV	2017-I	2017-II	2017-III
BPG	1,8	1,9	1,9	1,9	2,1	2,3	2,8
Kontsumo pribatua	2,1	1,9	1,7	1,8	2,0	2,8	2,3
Kontsumo publikoa	4,1	4,3	3,4	3,0	1,7	1,1	0,9
Inbertsioa	4,7	3,4	3,0	0,5	2,1	4,9	4,8
Esportazioak	2,6	2,2	1,6	3,4	4,1	3,9	5,8
Inportazioak	4,0	3,4	3,0	4,9	3,5	6,2	6,3
Langabezia tasa	4,3	4,2	4,1	4,0	3,9	3,8	3,6
KPI	0,1	-0,1	0,3	0,8	1,8	1,7	1,7

Iturria: ELGE eta Eurostat.


Alemaniako ekonomia %2,8 areagotu zen aurtengo hirugarren hiruhilekoan, esportazioek eta kapital fin-koaren eraketa gordinak, bereziki makinetan eta ekipamenduan eginikoak, bultzatuta. Horri esker, Europako lokomotora 2011tik izan duen urterik onena lortzeko bidean dago. Alemaniar ekonomiak eutsi dio urte hastapenean hasi zuen goranzko joerari, nahiko motela izan zen 2016aren ondoren. Izan ere, lehen hiruhilekoan %2,1 hazi zen eta bigarrenean %2,3ra bizkortu zuen erritmoa. Herrialde hartako gobernuaren arabera, ekonomia jardueraren bizkortze garrantzitsu hori lortzeko ezinbestekoa izan da 39 milioi lagun baino gehiagok lanpostu bat edukitzea. Horrek langabezia tasa %3,6ra murriztu du, serie historiko osoan jaso den maila txikiena baita.

EUROPAKO BATZORDEAREN AURREIKUSPENAK

Europako ekonomia hazkundera gorantz berrikusi dute

Europar Batasuneko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Europako Batzordeak udazkeneko txostenean argitaratu dituen aurreikuspenen arabera, Europar Batasuna %2,3 haziko da 2017an, %2,1, berriz, 2018an eta %1,9a motelduko da 2019. urtean. Datu horiek gorantz berrikusi dituzte udaberriko txostenean ezagutarazi ziren aurreikuspenak. Erakunde horrek uste du gaur eguneko ingurunea sendoagoa dela eta hazkunderaren bizkortzea enplegu sorrera handiagoan, inbertsioaren gehikuntzan eta finantza publikoen indartzean oinarritu du. Beste faktore dinamizatzaile batzuk kontsumo pribatuaren erresilientzia, munduko hazkunde handiagoa eta ziurgabetasun txikiagoa dira.


BPG. Europako Batzordearen ekonomia aurreikuspenak

	Oraingoak				Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2016	2017	2018	2019	2017	2018
Europar Batasuna	1,9	2,3	2,1	1,9	+0,4	+0,2
Erresuma Batua	1,8	1,5	1,3	1,1	-0,3	=
Eurogunea	1,8	2,2	2,1	1,9	+0,5	+0,3
Alemania	1,9	2,2	2,1	2,0	+0,6	+0,2
Belgika	1,5	1,7	1,8	1,7	+0,2	+0,1
Espainia	3,3	3,1	2,5	2,1	+0,3	+0,1
Frantzia	1,2	1,6	1,7	1,6	+0,2	=
Italia	0,9	1,5	1,3	1,0	+0,6	+0,2
Herbehereak	2,2	3,2	2,7	2,5	+1,1	+0,9
Portugal	1,5	2,6	2,1	1,8	+0,8	+0,5
Beste herrialde garatuak						
AEB	1,5	2,2	2,3	2,1	=	=
Japonia	1,0	1,6	1,2	1,0	+0,4	+0,6

Iturria: Europako Batzordea.


Alemaniaiko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Frantziako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Espainiako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Europar Batasunaren ekonomia guztiak hazi egingo dira bai 2017an, bai 2018an, bai 2019an. Azken urte horretarako, Bruselak %1,9ko batez besteko hazkundea aurreikusten du Euroguneko bazkideentzat. Halaber, Euroguneko defizit publikoa datozen urteetan gutxituko dela iragarri du.

Ekonomiaren gorakada mehatxatu dezaketen arriskuen artean, Korean piztu diren tentsio geopolitikoak, Txinako ekonomiaren doikuntza eta politika protekzionisten ezarpena nabarmendu dituzte. Faktore gehiago ere aipatu dituzte, hala nola Brexitaren negoziazioa, euroaren balio irabazi handiagoa eta epe luzerako interes tasen igoera.

Langabezia tasa. Europako Batzordearen ekonomia aurreikuspenak

	Oraingoak				Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2016	2017	2018	2019	2017	2018
Europar Batasuna	8,6	7,8	7,3	7,0	-0,2	-0,4
Erresuma Batua	4,8	4,5	4,7	4,8	-0,5	-0,7
Eurogunea	10,0	9,1	8,5	7,9	-0,3	-0,4
Alemania	4,1	3,7	3,5	3,2	-0,3	-0,4
Belgika	7,8	7,3	7,0	6,8	-0,3	-0,4
Espainia	19,6	17,4	15,6	14,3	-0,2	-0,3
Frantzia	10,1	9,5	9,3	8,9	-0,4	-0,3
Italia	11,7	11,3	10,9	10,5	-0,2	-0,4
Herbehereak	6,0	4,8	4,0	3,5	-0,1	-0,4
Portugal	11,2	9,2	8,3	7,6	-0,7	-0,9
Beste herrialde garatuak						
AEB	4,9	4,5	4,3	4,1	-0,1	-0,2
Japonia	3,1	2,9	2,8	2,7	-0,2	-0,2

EAE-KO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2016		2017		
		III	IV	I	II	III
BPG	3,1	3,0	3,0	2,8	2,9	3,0
Familien kontsumoa	3,1	3,0	3,1	3,0	3,0	3,0
Administrazioaren kontsumoa	2,3	0,8	3,1	2,6	1,2	2,7
Kapital eraketa gordina	3,1	2,3	2,9	3,0	3,2	3,9
Barne eskaria	3,0	2,5	3,0	2,9	2,7	3,1
Esportazioak	1,5	0,8	-0,5	1,5	1,9	3,7
Inportazioak	1,5	0,3	-0,2	1,9	1,8	3,9
Lehen arloa	2,0	1,7	-1,5	4,2	-1,9	-1,9
Industria	2,9	2,6	2,7	2,0	2,3	2,7
Eraikuntza	1,8	2,2	2,4	2,1	1,9	3,0
Zerbitzuak	2,8	2,3	2,7	3,0	3,2	3,1
Balio erantsi gordina	2,7	2,4	2,6	2,7	2,9	3,0
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	6,8	8,4	6,4	3,3	2,4	3,0

Iturria: Eustat.

Aurreikuspenak. 2017ko urria

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017		2017	2018				2018
	III	IV		I	II	III	IV	
BPG	3,0	3,0	2,9	2,8	2,5	2,3	2,2	2,4
Barneko azken kontsumoa	2,8	2,8	2,8	2,6	2,4	2,2	2,1	2,3
Familien kontsumoa	3,1	3,1	3,1	2,8	2,5	2,2	2,2	2,4
Administrazioaren kontsumoa	1,4	1,5	1,7	1,7	1,7	1,8	1,8	1,8
Kapital eraketa gordina	2,9	2,9	2,8	3,0	3,2	3,4	3,4	3,2
Barne eskariaren ekarpena	2,9	2,9	2,9	2,8	2,6	2,5	2,4	2,6
Kanpo eskariaren ekarpena	0,1	0,1	0,0	0,0	-0,1	-0,2	-0,2	-0,1
Lehen arloa	5,2	3,5	2,1	-2,9	-5,2	-6,3	-8,1	-5,6
Industria	2,6	2,9	2,5	2,9	2,7	2,7	2,8	2,8
Eraikuntza	2,1	2,3	2,2	1,9	1,7	1,7	1,4	1,7
Zerbitzuak	3,1	3,0	3,1	2,9	2,7	2,4	2,3	2,6
Balio erantsi gordina	3,0	3,0	2,9	2,8	2,5	2,3	2,3	2,5
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,8	2,7	2,9	2,3	2,0	2,2	1,9	2,1
Enplegua	2,2	2,0	2,1	2,0	1,7	1,6	1,4	1,7

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2017	2018		2017	2018
Confebask	3,0	2,7	BBVA	2,7	2,9
Laboral kutxa	2,9	2,7	CEPREDE	2,7	2,5
Funcas	2,8	—	Hispalink (BEGren aldakuntza)	2,7	2,4

Iturria: CEPREDE (2017ko urria), BBVA (2017ko azaroa), Confebask (2017ko uztaila), Laboral Kutxa (2017ko uztaila), Funcas (2017ko maiatza) eta Hispalink (2017ko uztaila).

ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2016				2017	
		II	III	IV	I	II	III
BPG	3,3	3,4	3,2	3,0	3,0	3,1	3,1
Kontsumo pribatua	2,9	3,2	2,7	2,7	2,3	2,4	2,4
Kontsumo publikoa	0,8	0,9	0,8	0,0	0,7	1,1	1,0
Kapital finkoaren eraketa gordina	3,3	3,6	2,7	2,7	4,8	3,8	5,4
- Aktibo finko materialak	3,4	3,6	2,9	2,8	5,0	3,9	5,4
- Eraikuntzan	2,4	2,3	2,1	3,1	4,1	4,0	4,9
- Ekipamendu ondasunetan	4,9	5,5	4,1	2,5	6,3	3,8	6,1
- Jabetza intelektualaren produktuak	2,7	3,4	1,6	2,1	3,7	3,2	5,5
Nazio eskaria (ekarpena)	2,5	2,9	2,2	2,0	2,4	2,3	2,7
Esportazioak	4,8	6,2	3,8	4,5	6,5	4,4	4,9
Inportazioak	2,7	4,8	0,8	1,6	4,9	2,3	4,0

Iturria: INE.

Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2017	2018		2017	2018
AFI	3,1	2,7	Intermoney	3,1	2,5
Axesor	3,1	2,5	Repsol	3,2	2,4
BBVA	3,1	2,5	Santander	3,2	2,7
Bankia	3,3	3,0	Solchaga Recio & asociados	3,1	2,6
CaixaBank	3,1	2,4	BATEZ BESTE	3,1	2,6
Cemex	3,1	2,7	Gobernua (2017-10)	3,1	2,3
CEEM-URJC	3,1	2,5	Espainiako Bankua (2017-09)	3,1	2,5
CEPREDE-UAM	3,1	2,5	Europar Batzordea (2017-11)	3,1	2,5
CEOE	3,0	2,5	NDF (2017-10)	3,1	2,5
FUNCAS	3,1	2,6	ELGE (2017-06)	2,8	2,4
ICAE-UCM	3,1	2,5	The Economist (2017-11)	3,1	2,7
IEE	3,2	2,6	Consensus Forecast (2017-11)	3,1	2,5

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

NAZIOARTEKO EKONOMIA

Ekonomia hazkundera

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2016				2017	
		II	III	IV	I	II	II
AEB	1,5	1,2	1,5	1,8	2,0	2,2	2,3
Txina	6,7	6,7	6,7	6,8	6,9	6,9	6,8
Japonia	1,0	1,0	1,0	1,7	1,4	1,5	1,6
Kanada	1,4	1,1	1,5	2,0	2,3	3,7	—
Europar Batasuna	1,9	1,9	1,9	2,0	2,1	2,4	2,5
Eurogunea	1,7	1,7	1,7	1,9	2,0	2,3	2,5
Alemania	1,9	1,9	1,9	1,9	2,1	2,3	2,8
Frantzia	1,2	1,2	0,9	1,2	1,1	1,8	2,2
Erresuma Batua	1,8	1,8	1,8	1,6	1,8	1,5	1,5
Italia	0,9	1,0	0,9	1,0	1,3	1,5	1,8
Herbehereak	2,2	1,9	2,4	2,8	2,6	3,8	3,3

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

Consensus Forecast. 2017ko azaroa

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018
AEB	2,2	2,5	2,1	2,1	4,4	4,1
Japonia	1,6	1,3	0,4	0,7	2,8	2,7
Kanada	3,0	2,1	1,6	1,8	6,4	6,3
Europar Batasuna	2,2	1,9	1,7	1,7	—	—
Eurogunea	2,2	1,9	1,5	1,3	9,2	8,6
Alemania	2,0	2,0	1,7	1,6	5,7	5,5
Frantzia	1,7	1,7	1,0	1,2	9,3	8,9
Erresuma Batua	1,5	1,4	2,7	2,6	4,5	4,6
Italia	1,5	1,2	1,3	1,1	11,2	10,8
Herbehereak	3,2	2,3	1,4	1,5	—	—

Iturria: Consensus Forecast.